

Loiolako Iñigoren kalea, 7 · 20700 ZUMARRAGA Gipuzkoa · Telf. 943 72 15 14 · Fax 943 72 56 73
www.lasallezumarraga.eus · aldizkaria@lasallezumarraga.eus



**Ikasturte berria,
aldizkari berria**

	Editoriala Hasiera berri baten hasiera	2-3
	La Salle Legazpi Calendar	4-11
	Berriak	12-15
	Elkarrizketa Dani Azurmendi	16-19
	Gure txokoa Bai, nor da Pikachu naiz	20-21
	Erreportaia Hezkuntza programak	22-27
	Irakasleen txokoa	28-35
	Ikasleen txokoa	36-41
	Ikastetxea lehen eta orain	42-43
	Zorionak	44-47
	UGLE	48-49
	Kontraazala	50



La Salle Legazpi



@LaSalleLegazpi



LaSalle Legazpi Zumarraga-Urretxu

Hasiera berri baten hasiera

Aitor Macho

Jokin esnatu zen goiz hartan eta bueltaka zebilen ohean. Gelditu ezinik zegoen eta argiak kolore desberdinak zekartzan, buelta bakoitzean.

Halako batean, egunsentia datorrela adierazten duten izpiak heldu ziren eta, bat batean, burura etorri zitzaion zenbat proiektuei uko egin zien azkeneko urteetan eta konturatu zen zenbat gauzei eman zien lehenetasuna, bere burua gehiegi kontutan hartu gabe: haserre, frustrazioa eta poz gutxi izan ziren identifikatu zituen sentimenduak. “Nola liteke? Goizero nahi dudana eta izan ez dudana agertu eta desagertu egiten da nire aurretik. Ametsetan ote nabil, oraindik?”.

Iratzargailuak jo eta erabateko kontzientziara bueltatu zen. Bere buruan galdera sendo bat bueltaka zebilen: “Ba al dakizu zer nahi duzun?” Eta galdera horri erantzun erabakiorra emateko intentziaz jaiki egin zen.

Jaiki eta aurreko gauean prestatutako arropa hartu zuen Jokinak, baina Mirenek ikustarazi zion euria ari zuela. “Upsss! Plan aldaketa; arroparena, hobe esanda, eta bide batez, lanera heltzeko orduarena”. Baina ez zitzaion gehiegi inporta, bere bizi-proiektu berriaren lehenengo eguna izango zelako,

hainbestetan pentsatutakoa, baina inoiz ez hasitakoa. Eta, euritarako zapata egoki eta erosoak jantzita, bulego aldera abiatu zen, espektatibarik gabe, egun hura hasteko egun aproposa izango zelaren pentsamendu hutsarekin.

Eta, astelehen hartan, zenbat lan pilatuta zegoen jakinda ere, Jokinak desberdina izango zela pentsatzen zuen. Zein zen plana? Etxean Mirenekin bazkaldu, arratsalde lan egin eta etxera goiz bueltatu. Eta plan berbera zeukan astearterako.

Baina, konturatu aurretik, arratsaldeko zazpiak ziren eta bazkaldu gabe zegoen. Eta ez hori bakarrik: berehala astearte gaua zela konturatu zen. Astearen hasierako helburu berbera zeukan eta abiapuntu bereborean zegoen, nonbait. Jokinak orduak ihes egiten ziotela eta plan denak hondatzen zitzaizkiola sentitzen zuen. Egoerak bere gainetik egoten ziren beti eta besteek bere ordezt hartzen zituzten erabakiak. Aste osoa

hasperen batean joan egin zitzaion. Egunak pasa ahala, galdera bat errepikatzen zitzaion buruan: “Ba al dakizu nora zoazen?” Ostirala zen eta konturatu zen bere azken aste hori bere azken urte osoaren antzekoa izen zela, konpromezua eta bere buruarekiko konpromezua desagertuak zirelarik.

Maitasunaren beharra, besteekiko gaizki ulertutako errespetua eta beldur bilduma batek, berriz ere, azkeneko postura eraman zuten Jokin, inora eraman zuten.

Larunbata zen eta egun berri bat hasten zen. Eta une hartan bideari ekin zion, garrantzitsuena lehena jarritz. Eta garrantzitsuena bera zen eta lortu nahi zuena.

Zalantzarik gabe, goiz aparta zen eta leihoaren beste aldean eguneko argia berezia zen. Jokin gustura sentitzen hasi zen. Bere gorputzeko atal guztiak izaren kontra sentitzen zituen bitartean, bere bizitzako kapitulu bat ixteko eta beste berri bat hasteko unea zela jakin zuen.

Momentu hartan bai., benetako aldaketaren unea zen...

Gure egunerokotasunean beti aldatzeko aukera dago. Egia da errutinak beti bide beretik gu eramaten saiatzen dela, baina gure erabakia da inertzia hori puska dezakeena. Errutina horretan pertsona, egoera eta gauza on asko badaude. Horiek zaindu eta mantentzeko erronka daukagu, baina “ba al dakigu nora goazen?” Norabide hori oraindik ez badugu hartu, edozein momentutan egin dezakegu.





24 La Salle Legazpiko ikasle talde batek urtero Errekaren Lagunak taldeak Zumarragako eta Urretxuko Udalekin lankidetzan antolatzen duen Urola ibaiaren garbiketa lanetan parte hartu zuen. Ingurumenaren zaintzan herritarrek geroz eta sentibilizatuagoak egon arren, beharrezkoa izaten jarraitzen du garbiketa egun batek. Izan ere, uretan aurkitzea imajinaezinak diren gauza pilo atera beharra

dago, oraindik tarteka ibaia zabortege gisa hartzen denaren adierazgarri. La Salleko ikasleek zibikoak ez diren jokabideak salatzeko aprobetxatu zuten aukera eta ez zuten uretara jauzi egiterakoan duda izpirik izan Urola ibaia garbi utzi ahal izateko. Hemendik egindako lana eskertu nahi diegu parte hartu zuten guztiei, ehun bat lagun bertaratu baitziren.



29 LH 4. eta 5. mailetakoko ikasleek Ensemble Moxos taldeak Zelai Ariztin eman zuen kontzertuaz gozatu zuten.

Bertan, musika entzun eta koreografiak ikustez gain, beraien kulturari buruz asko ikasi zuten.

30 Udazkeneko eguzki izpiak aprobetxatuz, hiru urteko gelako haurrek parkera egin zuten irteera. Biziki gozatu zuten txikiek geletatik kanpo elkarrekin jolastuz.



30 Top@DIPC
PASSION FOR KNOWLEDGE 2106
ZIENTZIAREKIN SOLASEAN
(Eureka-Zientzia Museoa)

Pasa den irailaren 30ean, Euskal Herriko 350 ikaslek punta-puntako zientzialari batzuekin elkartzeko aukera izan zuten. Azkeneko urteetan, Donostiako International Physics Centre-ak, Pedro Miguel Etxenike zientzialari euskaldunaren eskutik, jardunaldi hauek antolatzen dihardu ikasle eta gazteei zientzia gerturatzeko asmoz.

Aurten, Pamela Diggle, biologo estatubatuarra eta landareetan aditua; Elena Cattaneo, biologo italiarra eta neuronetan aditua; eta Duddley Herschbach, fisikari estatubatuarra eta Kimikan Nobel saridunarekin solasaldian aritzeko aukera izan zuten gure ikasleek. Haien ibilbideaz hitz egin zieten eta ikasleek prestatutako galderei ere erantzun zieten. Aukera paregabea izan zen zientzialari onak pertsona arruntak direla ikusteko eta haiek lortu dituzten bezalako gauzak gure ikasleek ere lortu ditzaketela konturatzeko, ahalegina eta egiten duten ekintzetan pasioa jartzen badute.



5 DBH4ko ikasleek EITBra bisita egin zuten *Gu Ta Gutarrak* programan ikusle bezala parte hartzeko.



18 DBH3ko ikasleek Diario Vasco-ko instalakuntzak bisitatu zituzten. Bertan, egunkari bat sortzeko jarraitzen den prozesua ikusi zuten.



20 Janaria dibertigarri bihurtzeko eta elikadura osasungarriaren garrantziaz jabetzen joateko, 3, 4 eta 5 urteko haurren gelak gastronomia-laboretegi bilakatu ziren zapore eta osagarri ezberdinekin esperimenta zezaten. Ikasleek karta desiragarria sortu zuten: barazki sandwichak, fruta-broxeak eta platanozko izozki epela.



21 Esploratzaile paperean buru-belarri sartuta ibili ziren 4 eta 5 urteko ikasleak ikasturteko lehen ibilaldian. Etxeberri ingurua ezagutzeko aukera izan zuten bidegorritik barrena paseoa eta esploratzaile txiki-handiak benetako profesionalak bezala ibili ziren. Arropa eroso soinean, bakoitzak ikerketarako ekipamendua eraman zuen: linterna bidegorriko tunela zeharkatzeko. Sekulako abentura neska-mutilen irudimenarekin.



21 5. eta 6. mailetako ikasleek ohikoa den mendi-bueltaz gozatzeko aukera izan zuten. Eguraldi paregabea lagun, Trekutzen igaro zuten eguna, lagun arteko giro ezin hobear gozatuz eta naturak eskaintzen duena errespetatuz. Abestu, perretxikoak eta gaztainak bildu, txabolak eraiki eta Bottle Flip Challenge izan ziren jarduera aipagarrienak. Konpetentzia hauek guztiak lantzeko aukera hobeargorik?



24 La Salle Legazpi urriaren 24an izaten den Liburutegiaren Eguna ospatu zuen aste osorako jarduerak antolatuz. Ekintza horien helburua ikasleek, dagoeneko egin ez badute, irakurketa plazer eta ezagutza iturri dela barneratzea zen, eta horretarako dituzten baliabideak ezagutaraztea. Besteak beste, herriko Udal Liburutegiak espreski atak zabaldu zituen La Salleko LHko 4. mailako ikasleek bisitatu zezaten. Instalazioak ikusteaz gain, liburu mailegu zerbitzuaren funtzionamendua, zer motatako liburuak aurki ditzaketen, zeintzuk diren gomendagarriak eta beste hainbat azalpen jaso zituzten neska-mutilei liburutegira egindako txangoan. Eskola barruan LHko ikasleek gustukoa duten liburuarentzat azala landu zuten eta txikiagoek, berriz, liburu banatzailea. DBHko ikasleak, gainera, ipuin kontalariaren azalean sartu ziren hurrei ipuinak kontatzeko. Liburuaren munduan murgiltzeko gonbitea, dudarik gabe.



25 *Golazen* telesailaren denboraldi berria azaroaren 18an estreinatu zen ETBn baina La Sallen sekulako primizia izan zuten LHko 4, 5 eta 6. mailakoek: *Golazen*eko aktoreak etorri ziren eskolara urriaren 25ean. Eskolan izan ziren Ordiziako Aitana eta Paula Etxeberria ahizpak eta Aizarnazabalgoa den Lorea Iribar, Basakabi udalekuko ikasle berriak pantaila txikian. Aktoreek azaldu dutenez *Golazen* gaztetxoaren artean euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko eginiko produkzioa da. Telesaila aurkezteaz gain, abestu eta dantzatu ere egin zuten neskek, eta nola ez, ikasleen jakinmina ere ase zuten. Ametsez, casting-az edota esperientziak galdetu zieten gure ikasleek. Hori bai, aktore lana ondo egiteko gauero etxeko-lanak zuzen egin behar izaten zituztela ere esan zuten, gidoia guztiek ondo ikasita eraman behar izaten zutelako.



26 3 urteko gelako ikasleek masaje saio bat garatu zuten bikoteka eta pilotak erabiliz musika lasaia entzuten zuten bitartean.



26 Suhiltzailearena atentzioa gehien ematen duen lanbideetako bat da lan horrek dakarren arriskua eta garrantzia direla eta. LH4ko ikasleek suhiltzaileen egoitzara bisita egin zuten haien lana hobeto ezagutzeko. Besteak beste, zer-nolako erramintak erabiltzen dituzten ikusi zuten. Eta ikusi ez ezik, arnasketa maskarak eta kaskoak probatu zituzten, larrialdietan garajera jaisteko erabili ohi duten barratik irristaka jaitsi ziren eta gruan ere ibili ziren, benetako suhiltzaileen paperean erabat murgilduta. Bisitaren ondoren, neska mutilei handitan zer nahi duten izan galdetuta, batek baino gehiagok erantzungo lukete seguruenik: "Ni? Suhiltzaile".



28 Haur Hezkuntzan, ingeleseko saioetan, ikasleek Halloween eguna ospatu zuten. Horretarako, bezperan gela apaindu eta egunean bertan jaia egin zuten. Ikasleak gelaz gela ibili ziren "Trick or treat" ("Trikimailua edo tratua") egiten eta eman zizkieten goxokiak gustora asko jan zituzten. Gainera, astean zehar egindako eskulana, "mamua", etxera eraman zuten. Modu honetan, ohitura ezberdinak ezagutzeko aukera izan zuten eta primeran pasatu zuten, nahiz eta batzuk beldur pixka bat pasa...



4 2 urteko gelako haurrek jogurtak, esnea eta gazta dastatu zituzten elikagaiak lantzen dituzten unitate didaktikoaren ekintza osagarri bezala. Bestalde, haurrek arrautzak nolakoak diren ere ikusi zuten.



9 Esnekiak dastatu ostean, 2 urteko gelako haurrek fruta eta ogia dastatu zituzten.

10 Umeek primeran pasatu zuten irinarekin esperimentatzen. Ekintza bikaina.



15 Askotan, natura bera da oparirik hoberena egiten duena eta horixe erakutsi nahi izan zieten irakasleek HHko ikasleei Hosto Festa ospatuz. Hori dela eta, Hosto Festa ospatzeko asmoarekin HHko ikasleak hostoak biltzera joan ziren.

Benetan lan galanta zeukaten aurretik: hostoak bilatu, jaso, aukeratu eta kontu handiarekin gorde.



16 Hostoak bildu ondoren, hurrengo egunean HHko ikasleek frontoia jolas-leku bihurtu zuten Hosto Festa ospatzen zuten bitartean. Irudimenari esker, hostoekin pasilloak eta alfonbrak egin zituzten. Eta naturak musika propioa duen arren, frontoian Antonio Vivaldi konpositorearen "Udazkena" sonetoa jarri zitzaizen ikasleei, musikagileak biolinerako idatzitako "Lau urtaroak" kontzertuen zati batez goza zezaten jolasten zuten bitartean. Udazkenari, naturari eta musikari egindako omenaldia.



16 LH 1eko ikasleak Zumarragako Liburutegian izan ziren ipuin kontaketa saio batez gozatzeko. Liburutegia ezagutzeaz gain, ipuin kontalari bat zuzenean entzuteak duen xarmak ez duela inor desengainatuta uzten ikusi zen. Amaiera arte ikasleak aho zabalik mantentzea lortu zuen kontalariak eta hari esker orain haurrek badute besteei kontatzeko ipuin bat.



24 Nahikoa dira laurogeita hamar minutu, era erakargarri batean, Ormaiztegin jaiotako Zumalakarregi izeneko jeneral karlistaren bitxikeriak ezagutzeko. Eta, aukera aprobetxatuz, DBH 4. mailako ikasleak hara hurbildu ziren aurretik irakurritakoa baieztatzeko. Gelan XIX. mendeko gatazka politikoak lantzen ari ziren. Zergatik ez egin gauza bera Lehen Karlistadarekin? Hasieran, bideo bat jarri zieten inguruko ezaugarriak ezagutzeko. Jarraian, ikasleek, taldeka, museoan dagoen informazioa landu zuten ondoren besteei azaldu ahal izateko. Horrela, bakoitzak eskutan zuen txostena betetzea lortu zuen. Bukatzeko garai hartako arropaz jantzita argazkiak ateratzeko aukera izan zuten.

Ordu bat eta erdiak inguruan autobusa hartu eta herrira itzuli ziren pozik, bai ikasleak, baita irakaslea ere, interesa jarritz eta gelaz kanpo, XIX. mendeko gatazka esanguratsu bat hausnartzera hurbildu baitziren.



DBH Ohitura denez, DBH4ko ikasleak udaberrian ikas bidaian joaten dira ikastetxean beraien azkeneko urtean biziko duten esperientzia garrantzitsuena bizitzera. Ekintza hori finantzatzeko ostegunero bokata goxoak prestatu eta salmentan jartzen dituzte. Bokata eta freskagarri eskaintza hau ikasle eta irakasleen artean arrakastatsua da; honen testigu ostegunero atsedendian sortzen den giro polita da.

Abenduaren 2an, La Salle Legazpik Euskararen Eguna ospatu zuen. Eskola-egun berezia izan zen hasieratik. Goizeko lehenengo saioan ikasleek eta irakasleek euskararekin zerikusia zeukan gogoeta landu zuten. Ondoren, etapa bakoitzean ikasleek ekintza desberdinak garatu zituzten: Haur Hezkuntzan, eskulanak eta kartel lehiaketa egin zituzten goizean zehar; Lehen Hezkuntzan eskulanak egiten jardun zuten goiz osoan; eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan kartel lehiaketa eta Mannequin Challenge izan ziren ekintza nagusiak. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan Euskararen Egunak arratsaldean jarraitu zuen bertsoak, dantzak, abestiak eta karaokea lagun. Horretaz aparte, DBH 4. mailako ikasleek gainontzeko ikasle eta irakasleentzat pintxoak prestatu zituzten eta ikasleek photocall berezi batean argazkiak ateratzeko aukera eduki zuten. Egun bikaina, benetan.



HH LH DBH

Urtero bezala, La Salle Legazpik Gabonetako postalak jarri zituen salmentan. Postal hauen salmentaren helburuak berdina izaten jarraitzen du: ikasleek eta familiek postal hauek erosita jasotzen den dirua PROYDE-PROEGAk bultzatutako proiektua finantzatzeko erabiliko da. Aurtengo proiektua Guatemalan San Marcos eta El Quiché-ko departamenduetako herri-eskoletan neska eta nerabeen haurduntza goiztiarraren prebentziorako hezkuntza programa bat aurrera eramatea da. Hona hemen aurtengo postalak: Gabonak zoriontzeaz gain, solidaritatea sustatzen duten postalak.



LH Udazkenean zehar LHko ikasleek naturarekin eta haziakin lotutako hainbat ekintza burutu zituzten. Alde batetik, gure baratzean haziak landatzen jardun zuten. Bestetik, mendian jasotako hostoekin haritza sortu zuten pasiloa apaintzeko. Azkenik, ingeleseko saioan haziak buruzko proiektua landu zuten.



KRISTAU ESKOLA: balioen, gizarte konpromisoaren eta inklusibitatearen eskola

KRISTAU ESKOLAK Formakuntza

Plana dauka, eta kalitatezko hezkuntza eskaintzeko beharrezkoa den etengabeko hobekuntzarekin bat egiten du, berrikuntza pedagogikoa eta teknologikoa kontuan hartuta

KRISTAU ESKOLAK 2016-2017 ikasturteari hasiera emateko ekitaldi ofiziala gauzatu zuen, Bilboko Ave Maria Ikastetxean, eta bertan egon zen Hezkuntza Sailburu Crisitina Uriarte andrea. Era berean, euskal hezkuntza-sistemako ordezkari instituzionalak eta sareko erakunde eta ikastetxeetako 250 arduradun baino gehiago bertaratu ziren. 80 erakundek, 132 ikastetxek, 8.000 hezitzailek eta 90.000 ikaslek osatzen dute KRISTAU ESKOLA, eta Euskadin erreferentziako hezkuntza-proiektua izaten jarraitu nahi du, proposamenak egiteaz gain, kohesioa sustatzen duena. Horretarako, ikaslea eta familiak hezkuntza-sistemaren ardatz gisa hartzen ditu, eta egungo euskal

gizartean, pertsona jantzia izateko prestakuntza osoa eskaintzen die. KRISTAU ESKOLAREN hezkuntza-jarduera pastoral pertsonen duintasuna defendatuz garatzen da, Hezkuntza-proiektu Pastoral Markoaren bidez; izan ere, bertan, gure erroak, usteak, helburuak eta erroak adierazi ditugu. Zuzendari nagusia den Mikel Ormazabalek KRISTAU ESKOLAREN erroak eta helburuak azpimarratu ditu: "eskola eta kristauak izateko gai izan behar dugu, gaurdaino ohituta egon garenaren aldean guztiz ezberdina den erreferentzia erlijioso eta kulturalerako eremuan. Hortaz, gure eskolak ingurura eta elkarriketa jarraitura irekirik egon behar dute, baita aldaketara eta etengabeko hobekuntzara ere, beharizan bereziki adi egonez, eta globalizazioa, kulturartekotasuna, mugikortasuna eta garapen teknologikoa ulertzen gai izanik, besteak beste.

KRISTAU ESKOLAK sare-lanaren aldeko apustua egiten jarraitzen du, irekitasuna eta harrera errealtate diren gunea eskaintzen, baita bizitza, hazkuntza eta konfiantza eskaintzen diren gunek sortzen ere. Hitzaldian, Mikel Ormazabalek "balioak eta barnekotasuna lantzen dituen balioen, gizarte konpromisoaren, zintotasunaren, inklusibitatearen eta berdintasunaren arabeko eskola" izateko beharra azpimarratu zuen. Bestalde, KRISTAU ESKOLAREN formakuntza-planaren garrantzia aipatu zuen, "KE-n dugun formakuntza iraunkor eta jarraiturako tresna gisa; izan ere, beharrezkoa den etengabeko hobekuntzarekin bat egiten laguntzen gaitu, kalitatezko hezkuntza eskaini ahal izateko, berrikuntza pedagogiko eta teknologikoa kontuan hartuta". Ekitaldiekin amaitzeko, ikastetxeetako zuzendariak egiten duten lana eskertu zuen, hezkuntza-proiektuaren norabidea mantentzeko ardura baitute.

La Salle-Legazpik kirol arropa berria estreinatu du denboraldi honetan

Kirol talde handiek bezala, La Salle Legazpik kirol arroparen diseinu berriak atera ditu denboraldi honetarako gure ikasleek ikastetxearen koloreak uzitu eta defendatu ditzaten pisten, futbol zelaian eta kaleetan. Urdina eta horia dira La Salle Legazpi ordezkatzeko duten koloreak: kolore deigarriak jende kementsuarentzat.







Luzitzeko moduko irudia eta fatxada

Filipinar Irlak kaletik igaro gabe denbora daramanari seguruenik harridura sortuko dio La Salle ikastetxearen fatxada berriak. Izan ere, atzealde urdinak eta La Salleren irudi den izar horiak, hiriko paisaiari itxura ezberdina ematen diete kaletik ikusita, lehen baino argiagoa eta ausartagoa baita, baina gehiegikeririk gabe. Barnean metalezko egitura eta La Salleren markaren

koloreak dauzkan kanpo estaldura erabili dira fatxadari itxura berri hau emateko. Horrela, berrikuntza benetako branding ekintza bihurtu da eskolaren nortasuna erakusgai utziz. La Salle, izan ere, urdina eta horia da eta ez dago hori aldatuko duen marka gidalibururik. Oraingoan ikastetxeko zuzendaritzak eskolaren irudia indartu nahi izan du ahalik eta protagonismo gehien emanaz eta zer hobe euskarri gisa fatxada erabiltzea baino!



Obra aurretik



Eskolaz kanpoko eskaintza

Ikasturte hasieran ikastetxearen helburuetako bat eskaintzen diren zerbitzuen berrikuspena egitea izan zen. Horregatik, eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza bat luzatu zuen eskolak. Bi ekintza izan ziren hain zuzen ere: "Xakea", LHn eta "Teknologi Tailerrak:

robotika, bideojokoak eta animazio teknikak", DBHn. Ikasleek oso gustura hartu zituzten. Xakean, 5 ikasleko talde bat osatu zen jangela eta gero elkartzen dena; eta Robotikan, 17 ikasleko parte hartzen dute ostegunetan 2 taldetan antolatuta.



Obra ondoren



Dani Azurmendi

“Ikaskuntzaren Testuinguru Berria garatzen ari gara, proiektuetan oinarritutako ikasteko modu berria”

La Sallen ohikoa den moduan, uztailean Errioxako San Asensio herrian hartu zion erreleboa Dani Azurmendik Aitor Machori, zuzendaritza eskuz aldatuz. 2003tik darama La Salle Legazpin eta hezkuntza alorra zaintzeaz gain, eskola batek duen enpresa izaera kudeatzea tokatu zaio. Ezin ahaztu 70 langileko ikastetxe bat enpresa ere badela. Gogotsu heldu die erronkei. Berak kontatu digu.



Irakaslea eta zuzendaria izateaz gain, gurasoa zaitugu. Nola aldatzen du horrek ikuspegia?

Irakaslearena ez, Bai, ordea, familiarena. Zorrotzagoa bihurtzen zara eskolarekiko. Parte aktiboa naizen heinean hobeto ulertzen ditut gurasoak.

Zeintzuk dira zuzendari gisa esku artean dituzun erronka nagusiak?

Barnera begira, gure lantaldearen lidergotza ahalik eta hobetoen eramatea eta noski, ikasle kopuruari eustea zeren jaiotza tasak behera egiteak eragina du. Eta hezkuntza ereduari dagokionez, kalitatezko zerbitzua eskaintzen jarraitzea da xedea, gurasoak eta ikasleak asebeteta izatea, horrek gauzak ondo egiten ari garela esan nahiko baitu. Ikastetxe hau erreferentea izan da eta izaten jarraitu behar du La Salle egiten dugun guztion ahaleginari eta ilusioari esker. Zentro bezala gauza asko egiten ditugu ondo eta beste batzuk hobeto beharra dauzkagu, noski.

Ikaskuntza prozesua bira bat ematen ari da proiektuetan oinarritutako sistema bateratz. ¿Zertan ari zarete lanean?

Hala da, bai. Ikaskuntzako Testuinguru Berria garatzen ari gara. Ezagutzak eta konpetentziak eskuratzeko modu berri bat da, proiektuetan oinarritzen dean. Bi irakasle materialaren sortze lanketan ari dira gainontzeko La Salleko zentroekin batera. Bigarren ebaluaketan ezarriko dugu eredu esperientzia pilotu gisa eta ikasturte amaieran ebaluatuko dugu emaitza. Helburua da 2017-18 ikasturtean martxan jartzea. Erronka garrantzitsua da.

Beste erronka bat da irakaslegoaren prestakuntza. Hezkuntza prozedura berriak jarri behar ditugu eta horrek guztion arteko lankidetzaz eskatzen du.

Iaz La Salle Legazpik Heldutasun Teknologikoaren ziurtagiriaren maila aurreratua lortu zuen. Eusko Jaurlaritzak ematen duen egiaztagiria. Zer suposatzen du ikastetxearentzat?

Digitalizazioa hor dago eta ezin dugu ezikusia egin. Ahalegin handia egiten ari gara egungo gizarteak hori eskatzen duelako. Sare Hezkuntzan sartzea espero dugu. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua digitalizatzeko Eusko Jaurlaritzak duen proiektua da. Kristau Eskola osatzen dugun zentroetatik soilik 38 ikastetxek hartuko dute parte.

Eskolaz kanpoko jarduerak antolatu dituzue ikasturte honetarako.

Bai. Ikasleek tailer teknologikoetan edo problemen erresoluzioa landuko den xakeko saioetan parte hartu dezakete. Lehenengoak LH3 eta DBH4ra bitarteko ikasleei zuzenduak daude eta bigarrenak LH osoari. Ahalegin handia egin dugu zerbitzu gehiago eta hobeagoak eskaintzeko. Ikastetxea zabalik egon behar du. Azkenean, gure semea alabak denbora gehiago ematen dute eskolan gurekin etxean baino lo orduak kentzen baditugu. Ingurune hori oso da garrantzitsua.

Zein da hezkuntzan azken urteetan emandako iraultza handiena?

Zoritxarrez uste dut pedagogiari dagokionez garapen handirik ez dela eman. Hezkuntza sektorea atzean geratu da gainerako sektore produktiboekin alderatzen badugu. XIX. mendeko eta XXI. Mendeko ikasgelak konparatzen baditugu antzerakoak dira. Gaurkoetan proiektoreak, arbel digitalak eta ordenagailuak ditugula, horixe da ezberdintasun nagusia.

Aldaketa orain Ikaskuntzako Testuinguru Berriarekin etorriko da. Irakaslea izango da dinamizatzailea baina protagonismo guztia ikasleak bereganatuko du. Hezkuntza praktikoagoa, ez hain teoriko baterantz goaz. Ikaslea esperientziarekin, bizipenarekin geratzen da zeren memoriaz ikasitakoa ahaztu egiten da. Horrek aldaketa eskatzen du eta aldaketaz konbentzitura egotea.

“Bai, nor da?” “Pikachu naiz”

Mikel Arbizu Anaia

Trenean nago. Berak eramaten nau. Trenean bidaiatzea gustatzen zait. Begiratzailerik guztiak ezagutzen ditut. Baita ere ezagutzen nautela uste dut. Leku lasaia aurkitzen dut: jendea edo paisaia begiratzuz; presarik gabe.

Joan den astean, geltoki batetan, hiru gazte sartu ziren, nire ondoan eserita, bakoitzak bere mugikorra eskuan: bilatu, berrikusi, tekleatu... Noizean behin, irribarre txiki bat, harriduraren keinua edo hasperen bat... iruzkinik gabe. Begiratu, mezuak irakurri, erantzunak bidali... Hiruren artean isiltasun osoz.



Harrituta, eszena kontenplatzen nuen. Zazpi geltoki pasa eta gero, jaiki ziren automatak izango balira bezala eta jaitsi ziren, ezer esan gabe.

Gazteak ziren. Pertsona zaharragoengan ere ikusiak ditut antzeko egoerak. Ez daukazu zertan kalera irten behar. “Enpantailatuta” dauden familiengan pentsatzen dut. Ez dago haserririk, ezta borrokarik ere. Bakoitza bere kontuetan dihardu. Umea iPadean filma bat ikusten ari da, ama argiaren abiadurarekin txateatzen ari da, nerabea mugikorrarekin buru belarri dabil eta aita, bateria gabeko I-Phone-arekin, erdi lo geratu da.

Teknikariak “gailu” deitzen diete: gu harrapatzeko, kontrolatzeko, gutaz jabetzeko, gu txunditzeko gaitasuna dutelako ote da? Jendeak asko estimatzen ditu (ez dago zalantzarik oso erabilgarriak direla); baina beraiek gabe etxetik irten ezin garelako pentsatzea, beraiek gabe bizi ezin garelako pentsatzea eta, kontuz, zaharkitua edo erabilgaitza gera ezin direla pentsatzea... beste kontu bat da. Gaur egun mundua bi klase handitan banatzen dela esan genezake: izaki bizidunak eta “gailu” horiek.

Gure hizkuntza ere aldatu da: bihar dei nazazu; barkatu, momentu bat, “dei galdu” bat daukat; ez zitzaizun nire “whatsapp”-a heldu?; ordu t’erdi daramat gaurko e-mailak erantzuten.

Uda bero honek beste ezuste bat utzi zigun: Pokemon Go. Honi buruzko pasadizorik ez da falta: irakasle batek bere lana utzi du joko honetan jarduteko; estatubatuar batek hilotz bat aurkitu zuen Pokemonak harrapatzen zebilela; Guatemala hiriko auzune batean “izaki”-en atzetik zebilen gizon bat tirokatu zuten; ...

Diotenez, gaur egunera arte pokemon fenomenoak milioika erabiltzaile lortu ditu. Zer esanik ez horrek zenbat diru suposatzen duen... Niantic enpresa Japoniako McDonald’s-ekin akordio batera heldu da: herrialdean dauden 3.000 jatetxeetan “gimnasioak” jarriko ditu (programaren entrenamendu guneak).

Orain dela hiru urte lau nerabetik batek egunero mugikorraren eta internet bidez komunikatzeko hiru ordu erabiltzen zituela azaldu zuten estatistikek; hau da, teknologiak aurrez-aurreko topaketak ordezkatzeko.

Ez dakit tren hartan hasieran aipatu ditudan eta nirekin zihoazen bidaiari haiek “pokegeltoki” batean jaitsiko ote ziren Pikachu edo Totodile eta abarren bila. Baina oroitzapen horrek pentsarazten dit.

Uda honetan baita, ez dakit ziur non, ile-apaindegian edo mediku kontsultan zain nengoela, aldizkari batean komiki labur bat irakurri nuen. Pertsonaien arteko elkarrizketak honela zioen, gutxi gora-behera:

- Ba al daukazu Facebook-ik? Ez.
- Instagram? Twitter konturik? Ez.
- Snapchat? Whatsapp? Ezta.
- Zer daukazu orduan? Denbora.

Politonoak eta alarmak isilpetu; “gailuak” desaktibatu; pantailak itzali; i-Pad-a ahaztu... pixka batean, behintzat. Gure buruarekin eta gure inguruan daudenekin konektatzeak pertsona sentitzen lagunduko gintuzke.

Hezkuntza programak

Garai berriak bizi ditugu eta ikaskuntza garai berri hauetara moldatu behar da. La Salle Legazpik etengabeko berrikuntzarekiko duen konpromisoa betetzen jarraitzen du eta marko metodologiko berria lantzen eta sustatzen duten herramintak aplikatzen dihardu.

Ikasketa kooperatiboa

Ikasketa kooperatiboa metodo tradizionalak bultzatzen duen ikasketa lehiakor eta indibidualistaren kontrako kontzeptua da. Metodo honek oinarritzat du ikasleen arteko interakzioa. Ikasleak 3-5 pertsonakoak izan ohi diren taldetan antolatzen dira eta elkarrekin lan egiten dute izaera anitzeko gaien inguruan ikasteko. Ikasketa metodo honetan hezitzailearen laguntza garrantzitsua da, prozesua zuzentzen eta gainbegiratzen baitu.



Ulibarri

Ulibarri ikastetxeen hizkuntza normalkuntzaren gainerako programa da. 1996-1997 ikasturtean ipini zen martxan eta une honetan 400 ikastetxe inguru dira programan parte hartzen ari direnak. ULIBARRI programako ikastetxeen hizkuntz normalkuntzako proiektuek euskararen erabilera indartzea dutenez helburu nagusi, programan sartu nahi duten ikastetxeek, hortaz, beren hizkuntz normalkuntzako proiektua eratu beharko dute.



Irati

Irati programa Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza arte erabiltzen da, eta Ezagutzaren Kudeaketara zuzendua dago: ikasleei informazioa lantzeko erreminta ezberdinak erakustean datza, sintetizatzen ikas dezaten:

- Mapa kontzeptualak
- Organigramak
- Infografiak
- Gantt diagrama
- Ishikawa diagrama



Barnetasunean oinarritutako hezkuntza: "HARA" Proiektua

Haur Hezkuntzako 3. mailatik Batxilergora arte aplikatzen den programa hau 'izaten' ikasteko gaitasunean heztera zuzendua dago, honela gure ikastetxeetako pertsonak:

- geroz eta gogoetatsuagoak izan daitezen
- irizpide etikoen alde egin dezaten
- anekdotatik haratago doan errealitatea behatu dezaten
- dimentsio eta adierazpen sinbolikoan irabaz dezaten
- konpromisora eramango dituen barnetasuna landu dezaten



Sein

DBHn ondorengo ezaugarriak dituen metodologia esparrua ezartzeko diseinatu da Sein programa:

- Arlo Anitzeko Proiektuen araberako lana
- Ikasketa Kooperatiboan oinarritua
- aurretik landutako La Salle programak jasotzen dituen

La Salle legazpik adanik jarri du martxan aurten ere Bigarren Hezkuntzako SEIN programa. Programa honen bitartez, ikasleek, taldeka, hainbat konpetentzia garatzen dituzte eta horretarako kurtso bakoitzeko gai batzuk (Gizarte, Euskara, Gaztelania, Matematika, Teknologia, Natura) ordu bat eskaintzen diote bere curriculumetik. Bi dira lehen eta bigarren ikasturtean garatzen dituzten proiektuak (Grezia eta Ingurumenaren inguruan, Erdi Aroa eta Mugimendua) eta hirugarren eta laugarrenean bat (Herri Solidarioa eta Eszenaritza Desberdinak). Lehenengo fase aldian irakasleek informazioa ematen diete gai bati buruz (Grezia, Erdi Aroa, Enpresak, ...)INPUT izeneko fasean eta gero ikasle talde bakoitzak, aurreko gaien murgilduz, proiektu bat aurrera eramaten du taldeka, OUTPUT izeneko fasean IDEAL izeneko metodologia aplikatuz.



Irakurketa Eraginkorra

Hizkuntza-berrikuntzen helburua da irakurle eta idazle aktiboak, ondo trebatuak eta helduak hezteak idazle bakoitza behar den bezala irakurtzen dakite, abiadura onean eta, noski, ulermen maila ezin hobearrekin. Irakurketa Eraginkorrek adimenezko lan teknika bereziak erabiltzen ditu, modu berezian bultzatu eta lantzeko: ulermena, intuizioa, abiadura, ikusmen-trebetasuna, oroimena, aurrerapena, etab.



Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza

La Salle Legazpiko ikasleak ohituta daude proiektuak lan egiten (Ikasketa Kooperatiboa, Crea, SEIN, ...); hala ere, POI-k beste buelta bat ematen dio proiektuak lan egiteko filosofiari, hezkuntza curriculumean sartzen diren ia ikasgai guztiak epe mugatu batean jorratuko den proiektu bakar batean uztartu nahi dituelako. La Salle Legazpik POI martxan jarriko du ikasturte honetan eta gure ikasleek lortutako emaitzak ikusiko ditugu.



Ulises

Ulises garapenaren hainbat arlotan estimulazio goiztiarra bultzatzen duen programa da:


1. SN Arloa (Neurona-sareak)
2. Arlo Psikomotorra. Lateralitatea garatzeko zirkuituak.
3. Arlo Pertzeptibo-Kognitiboa (PC)



Erreportaia

Crea

Programa hau sormena garatzeko sortua izan da. Bere helburua da ikasleriari alboko pentsamendua eta emozio trebetasun inguruko estrategiak eskaintzea, honela arazoak ebazteko sormenezko planteamenduak landu ditzaten. Creak erreminta ezberdinak barneratzen ditu, hala nola Aukeraketa Anizduna, Pentsamendu Hedakorra, Behaketa Dibergentea, Analogiak, Six & Six; eta baita Brainstorming eta honen moldaketak ere. Lehen Hezkuntzako 3. ziklotik aurrera metodo horiek pauso aratuak dituen prozedura batean antolatzen dira:



SIEP-FEAC

SIEP-FEAC hitzak "Sendi-irakaslegoa: Elkar partekatuz" / Familia-Escuela: Acción compartida" egitasmoaren inizialak hartzen ditu. Familien eta ikastetxeen artean lankidetzaz sustatzeko Hezkuntza programa bat da. Gurasoen Eskola bat baino gehiago da: HEZITZAILEEK (gurasoek, irakasleek, entrenatzaileak, orientatzaileak ...) hezkuntzari buruz elkarriketan aritzeko, informazioa eskuratzeko, ikasteko, beren ikuspuntuak eta esperientziak elkarri ezagutarazteko gunea da. Bertan, (taldeak etapan arabera -Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH- antolatzen dira, talde txikietan) irakasleek eta sendiek beren iritziak eman, elkarri entzun eta guztiek elkarrengandik ikasten dute.

Guatemalan San Marcos eta El Quiché-ko departamenduetako herri-eskoletan neska eta nerabeen haurduntza goiztiarraren prebentziorako hezkuntza-proposamena



PROIEKTUAREN KOKAPENA

Proiektua Marquense Goi-lautadako Comitancillo eta Concepción Tutuapa udalerrietan, San Marcos Departamenduan, eta Quiché Departamenduko Chicamán eta Uspantán udalerrietan, Reyna zonaldean, Guatemalako Errepublikan garatuko da. Konpondu beharrezko arazo nagusia gizarte guatemaltarraren ezberdintasun, pobrezia eta bazterketa itzelak dira, eta hori jasaten duena nekazal eremuetako biztanleria indigena da, batik bat, eta are gehiago biztanleria hauetako emakumeak. Arazo hau nabarmenki eta larriki ageri da herrialdean ematen den neska eta nerabeen haurduntza goiztiarren indize altuan.

PROIEKTUAREN AURREKARIAK

Ekimen hau abian jarri zen aurreko proiektu bati jarraipena emateko asmotan. Honela zioen: "EMAKUMEEN PROMOZIO ETA GARAPEN OSORAKO POLITIKA NAZIONALAREN INSTITUZIONALIZAZIOARAKO ESTRATEGIA SENDOTZEA ETA EGOKIEREN BERDINTASUN PLANA, SAN MARCOS DEPARTAMENDUKO HEZKUNTZA SISTEMAN, GUATEMALAN". Plan hau aurrera daramate PRODESSA-k eta PROYDE-PROEGA-k.

PROIEKTUAREN HELBURUA

Neska eta nerabeen haurduntza goiztiarrak gutxitzea lagundu, prebentziozko jardueren bitartez hezkuntza arloan, Haurduntzaren Prebentziorako Plan Nazionalaren markoan, San Marcos eta El Quiché-ko Departamenduetan, Guatemalan.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Haurduntza goiztiarra neska eta nerabe guatemaltar askori gertatzen zaie, batez ere, nekazal eremutan, non pobrezia handia den eta zerbitzu publikoak eskasak.

Proiektu honek laguntza eskaini nahi du hezkuntza-arlo honetan. Horretarako hezkuntza-programa bat burutu da neska eta nerabeen haurduntzaren prebentziorako. Programa honek diseinu pedagogiko bat du eta lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailetarako hezkuntza-baliabideak eskaintzen ditu, programaren aurreko fasean prestatutakoak.

Proiektuaren oraingo fasearen barnean doa plan hau El Quiché eta San Marcos bi udalerritarako 10 eskoletan gauzatzea, eta gainera MINEDUC-eko pertsonal teknikoa prestatzea planaren gauzatze horren jarraipena egin dezan.

PROIEKTUAREN GASTUAK

Proiektuaren aurrekontua: 149.591,06 €. Hauetatik Bizkaiko Foru Aldundiak: 111.073,56 €.

Irakasleen txokoa

Hona hemen gure irakasleek gure ikasle eta gurasoei ikasgaiz ikasgai gomendatzen dieten materiala.



Gurasoentzat
Sormena sustatzen duten jostailuak

Gurasoentzat
eta haurrentzat etxean entzuteko
Goazen komunera

INGELESA



La Salle-Legazpi-k Lehen Hezkuntzako ingeleseko klaseak indartzen ditu english.kuaderno.com izeneko irakurketa plataforma digitala erabiliz.

Kuaderno ingelesa era dibertigarrian ikasten laguntzen duen hezkuntza plataforma bat da. Bertan ikasleek benetako eta fikziozko testuak irakurri eta entzuten dituzte, ariketa praktikoak ere eginez. Metodoa ikasle bakoitzaren erritmora moldatzen da eta ikasle bakoitzaren trebeziaren, garapenaren, akatsen eta maiztasunaren arabera entrenamendu programa pertsonala sortzen du. 20 mailatan sailkatutako 200 audio liburu baino gehiago dauzkan bookroom edo liburutegi bat dauka. Ikasleek beraien mailako liburuak nahi haina irakurri ditzakete, baita maila baxuago bateko liburuak ere. Irakurketa bakoitzaren amaieran beraien ulermen maila neurtzen duen Quiz bat dago.

Benetako eta fikziozko liburuaz aparte, ikasleei irakurketarako zaletasuna sustatzen eta azterketa ofizialeterako prestatzen lagunduko dien gramatikako, hiztegiko eta ulermeneko 30.000 ingeleseko ariketa (Trainer) baino gehiago daude. Ariketa hauek joko eran planteatuta daude, non ikasleek puntuak irabazi eta erronkak gaindituz aurrera egin dezaketen.

GAZTELANIA
ARTICULACIÓN Y PRONUNCIACIÓN

Trabalenguas cortos:
Trabalengüista trabalenguoso
Un trabalengüista muy trabalenguoso creó un trabalenguas muy trabalenguado.

“Ladrillos”
El cielo está enladrillado,
¿quién lo desenladrillará?
El desenladrillador que lo desenladrille,
buen desenladrillador será.


Trabalenguas graciosos:
“Doña Trico Tricotosa”
Doña Trico Tricotosa
tricotaba sin parar,
con su triqui, triqui, traque,
con su triqui, triqui, tran.

Trabalenguas largos:
Yo sólo sé una cosa, a saber: sólo sé que no sé nada; y si sé, que nada sé, nada algo sé, porque entonces sé una cosa, siquiera sea una sola. Esto es: sé que no sé nada.

Tras tres tragos y otro tres, y otros tres tras los tres tragos, trago y trago son estragos, travesuras de entremés, trapola, tramo y tragón, treinta y tres tragos de ron, tras trozos de trucha extremo, en un tris los truene el trueno.

Ayer probé una hamburguesa que estaba super hamburguesada, se necesita de un hamburguesador que deshamburguesadamente la deshamburguesará y así buen deshamburguesador será.

NATURA



GIZARTE
Lokarriak lotzen ikasten. Bideoa

ERLIJIO
“Ikusten zaitut “ Abestia letrarekin. Bideoa

EUSKARA
Iñaki Gabilondo euskaramiñez
Kantak, bideoak, jokoak, baliabideak...
27 zapata

Bertsolaritza:

IKUSI NUENEAN...
(Kopla txikia)

Ikusi nuenean nik zure behatza, iruditut zitzaidan eskolako arkatza	Ikusi nuenean nik zure titia, iruditut zitzaidan melo bat lodia
Ikusi nuenean zure azazkala, iruditut zitzaidan piparen azala.	Ikusi nuenean nik zure titia, iruditut zitzaidan bai meloi handia.
Ikusi nuenean zure aurpegia, iruditut zitzaidan tomate handia.	Ikusi nuenean nik zure ahoa, iruditut zitzaidan txorien mokoa.
Ikusi nuenean nik zure lepoa, iruditut zitzaidan laneo tuboa.	Ikusi nuenean nik zure izterra, iruditut zitzaidan bazkaltzeko xerra.

MATEMATIKA
UNITATEA LANTZEN

TUTORETZA
Gabonetako lau oparien araua
Ez zortzi, ez hamar, ezta hamabi ere. Lau da zenbaki perfektua. Lau da adituek gomendatzen duten Gabonetako opari kopurua.

Helburu eskuragaitza dela dirudi. Familia osoa lehiatzen da umea zoriontsu egiteko eta hurrek senideen nahiak ere idazten dituzte Olentzerorentzako gutunean. Ondorioz, hainbeste opari jasotzen dituzte non ez diren gai egun oso bat jostailu horiekin jolasten emateko. Opari gehiegikeria honen aurkako irtenbidea: lau oparien araua.

Arau oso sinplea da. Lau opari aukeratzean datza, ondorengo lau printzipioetan oinarrituta:

1. Jantzeko balio duen zerbait (arropa, zapatak, osagarriak, ...).
2. Irakurtzeko zerbait.
3. Benetan nahi duten zerbait.
4. Behar duten zerbait.

Kalitatearen alde apostu egin behar da, kantitatea alde batera utzita, benetako erronka umeei dagokionez. Izan ere, umeek dena edukitzeko grina sentitzen dute eta, posible bada, momentu horretan nahi dute.

Baina... benetan gozatzen al dute jostailu horiek guztiak jasotzen dituztenean? Benetan baloratzen al dute opari bakoitza? Erantzuna EZ da. Zenbat eta opari gehiago jaso, hutsune handiagoa sentitzen dute ez direlako gai hainbeste opari asimilatzeke.

Hurrek hainbeste opariren aurrean ilusioa galtzen dute. Eta hainbeste estimuluren aurrean gogogabetasuna dator. Imajina ezazu egun batean galdetzen diozula: “Zer eskatuko diozu Olentzerori?” Haurrak hau erantzungo dizu: “Ez dakit”. Saiatu egun hori inoiz ez dadila heldu. Gogoratu ezazu Gabonen helburua ez dela bakarrik opariak egitea. Umeak jai hauetan haratago ikusteko gai dira. Gabon kantak, dendetako apaingarriak, argiak, familia biltzen denean, Gabonetako gozokiak, ... Haurrengandik pixka bat ikasi behar dugu egun hauetaz beste era batean disfrutatzeko.

Olentzerori liburu egokiak eskatzeko webgunea

HF



BIO-GEO
Antisorgailuak



Zientziaberri

GIZARTE
Kairos: denbora lerroak

PLASTIKA
Pintzela ta kuxina



EUSKARA

Euskal karaokea

Euskaldunon jatorriari buruzko bideoa



INGELESA

Learn lyrics and vocabulary while singing karaoke!

GAZTELANIA

WALL E (comunicación no verbal)

EL MEJOR CORTO DEL MUNDO PARA FOMENTAR LA LECTURA



ERLIJIO

Zenbat dakizu Itun Zaharra eta Itun Berriari buruz?

MUSIKA

Musikaren Historia



MATEMATIKA

Zenbaki Arruntak

Txantxangorriaren amakizuna

FISIKA

Konfigurazio Elektronikoa

ORIENTATZAILEA

EMOZIOTEGIA: Esan zer sentitzen duzun.

“Esan zer sentitzen duzun” liburuaren helburua haurrak, nerabeak eta helduak emozioen mundura gerturatzea da. “Hegoak” emango dizkigu gure eta besteen emozioak esploratzeko eta emozio horiek adierazten eta era osasuntsu batean kudeatzen ikasiko dugu.

Txorien hegalek lumak dituzte. Pertsonen hegalek, hitzak. Baina hitz guztiek ez digute laguntzen gora egiten. Nola sentitzen zaren argi eta garbi esaten duten hitzek soilik handitzen dituzte hegan egiteko dituzun aukerak.

Emozioen hiztegia, EMOZIOTEGIA, baliagarria izango zaizu hegalek oso modu berezi batez astintzeko... eta ez diozu hegalek astintzeari utzi nahi izango!!

NORAINO HELDU ZAITEZKE HEGALAK ASTINDUZ?



FRANTSESA

Voyez le magazine des ados en France

Le Petit Prince. Antoine de Saint-Exupery



TUTORETZA

Jarrera kontuak




Autoestima

Bizikidetza



Ikasleen txokoa

Gure ikasleen lana ez da azterketetara eta etxeko lanetara mugatzen. Ekintza pila bat burutzen dituzte eta oso interesgarriak diren banakako zein taldeko lan nahiz proiektuak egiten dituzte. Hona hemen adibide batzuk: gure ikasleak lanean!





HH 0-2 urte



Japonia HH 3 urte



Erroma HH 5 urte






Hezkuntza Fisikoa DBH



DBH 3 Euskara Iragarkiak






DBH 3 Graffitiak



DBH 3 Poesia emanaldia







LA SALLEtik – UGLEerako bidea:

**Ondorengo ikasleek LaSallen ikasi eta gero,
Batxilergoa eta Erdi Mailako LH Ikasketak,
UGLEn ikasten ari dira.
Irakurri ezazu beraien esperientzia!!**



MARIA ROA

Batxilergo Teknologikoa - 16 urte.

Batxilergo teknologikoa ikasi nahi nuela aukeratu ondoren, nire ikasketak zein eskolan burutu behar nituen kezka sortu zitzaidan. Herrian eta herritik kanpo dauden beste eskola batzuk bisitatu ondoren, Ugle aukeratu nuen. Lehenik eta behin herrian egoteak duen abantailarengatik, bestetik Teknologia esparruan esperientzia zutelako eta lagun eta familiako batzuen iritziak entzun ondoren animatu nintzen. Irakasleekiko gertutasuna ere aipatzekoa da. UGLEn hilabete batzuk eman ondoren, aukera hau egiteaz ez naiz damutzen.



MIKEL URTEAGA

Batxilergo Zientifikoa - 16 urte.

Hasiera batean ez neukan batere argi zein lekutan burutuko nituen nire batxilergoko ikasketak, baina herritik kanpo ikasteko gogoia nuen. Hala ere, nire anaiak UGLEn izandako esperientzia oso ona izan zela banekien eta beti izan nuen buruan ikastera hara joateko aukera. Azkenean, La Sallerekin UGLEa egindako bisitaren ostean, aurreko urtekoen iritziak konbentzitu ninduen han ikastera. Orain, bertan ikasten hasita nagoela, erabaki on bat hartu nuela esan dezaket; izan ere, gertutasunak denbora gehiago eskaintzen dit eskolaz kanpo, eta gainera irakasleekin harremana bikaina dela ikusi dut.



NAROA SALGADO

Batxilergo Humanistikoa - 16 urte.

UGLE ikastetxea aukeratzera bultzatu ninduen, bere gertutasuna izan zen batik bat. Egia esan, herrian bertan ikasteko aukera izanez, aprobetxatu nuen, pena merezi duelako. Horrez gain, inguruko pertsonei galdetu nien eskola honi buruz, eta denok ikuspuntu nahiz iritzi positiboak eman zizkidaten. Orain, oso pozik eta gustura nago hemen, eta berriro aukeratzeko aukera izango banu, UGLEa etorriko nintzateke.



EDORTA PEREZ

Erdi Mailako Mekanizatua - 16 urte.

Betidanik entzun ditut iritzi onak. Lagunak izan ditut hemen ikasten eta oso gustora atera dira UGLEtik. Baita ere, beti entzun dut irakasleekin harremana oso ona izan dela eta beti egoten direla laguntzeko prest. Gainera hemen herrian dago eta ez zara mugitu behar beste herri batera eta horrek denbora asko aurrezten dizu.



→ urola garaiko lanbide eskola

Beloki biribidea z/g

ZUMARRAGA

943 725 477

www.ugleskola.org

HEZKUNTZA ARAUTUAN:

- BATXILERGOA
- ERDI MAILAKO ZIKLOAK
- GOI MAILAKO ZIKLOAK
- OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAN:

- HOBETUZeko IKASTAROAK
- LANBIDEko IKASATROAK



ROAYER
Artes gráficas

Avda. P. Urdaneta, 13
Telf. 943 720 665
roayer@euskalnet.net
ZUMARRAGA